

## Zer da legionelosisa?

Biriketako infekzio bat da, sukarrak, zefalea eta neumonia eragiten dituena; batzuetan, oso larria izan daiteke, eta ospitaleratu behar izaten da.

## Zerk sortzen du gaixotasun hori?

Giroan dagoen bakterio bat da, gainazaleko uretan bizi dena (ibaiak, urtegiak), eta leku horietan osasunari ez dio kalterik eragiten. Legionella da.

## Nola iristen dira eraikinetara?

Gainazaleko uretatik hornidura-sistemara pasa daitezke, eta zirkunstantzia jakin batzuetan (tenperatura, zikinkeria edo inkrustazioak) eraikinetara instalazioak koloniza ditzake.

## Nola transmititzen da gaixotasuna?

Ur-hornidurako instalazioetan sartuz gero, bakterioa kontzentrazio altuetara iritsi daiteke, instalazio horietako baldintzak direla eta (tenperatura, zikinkeria eta inkrustazioak).

Gero, bakterioak airean barreiatu daitezke (dutxan, adibidez), aerosol edo ur-tanta txikietan, eta birikietan sartu eta gaixotasuna sor dezakete.

Gaixotasuna larria bihurtzeko, hainbat faktorek eragiten dute: zenbat bakterio irensten diren, zenbateraino diren patogenoak bakterio horiek, edo bakterio horiek irensten dituztenen immunitatea.

**Ez da transmititzen pertsonen artean.  
Ez da transmititzen ura edateagatik.**

## Nork izan dezake gaixotasun hori?

Bakterioekin kontaktuan egoteak ez du zertan gaixotasunik eragin.

## Zeinek duten arrisku handiena:

- Gizonek
- 50 urtetik aurrerakoek
- Erretzaileek
- Patologia kronikoak edo defentsak gutxitzen dituzten tratamenduak dituztenek.

## Zer egin dezakegu prebenitzeko?

### Dutxak eta txorrotak

Seguruagoa da tanta lodiko barreagailuak erabiltzea.

Urtean behin gutxienez desmuntatu behar dira ur-zirkuituetako barreagailuak edo filtroak (alkatxofak eta txorrotak), inkrustazioak kentzeko produktua egokiak erabiliz (ozpina edo kare-kontrako beste produktu batzuk).

Barreagailuak edo filtroak desinfektatu egin behar dira: hamar lejia-tanta bota ur-litro batean (lejia komertziala), eta utzi hogeita hamar minutuz.

Denbora luze batez etxebizitzatik kanpo egonez gero, komenigarria da itzultzean txorrota ireki eta ura atezaren uztea hodiak garbitzeko, eta gutxi erabiltzen diren txorrotak edukiz gero, purgatzea komeni da.

Gutxi erabiltzen diren bigarren egoitza edo etxebizitzetan, erabili baino lehen ur-zirkuitua garbitu behar da, ura korritzen utziz.

### Ur bero zentrala edo komunitarioa edukiz gero

Komenigarria da sistema garbi mantentzea, urteroko prebentzio-tratamenduak ere eginez. Hori bizilagunen komunitateak egin dezake, edo hark kontratatutako enpresa baimendu batek. Garrantzitsua da metagailuko ura beti 60°C-tik gorako tenperaturan egotea, eta metagailua urtero hustu, garbitu eta desinfektatzea.

### Termo elektriko bat edo gas-galdara metagailudun bat baduzu

Termoko edo metagailuko uraren tenperatura 60°C-tik gora eduki beti. Etengabeko funtzionamendua. Ur beroa instantean ekoizten duten sistemek ez daukate arriskurik.

### Aire girotuko ekipamendua badaukazu

Urtean behin, garbitu kondentsatuak biltzeko erretiluak, eta lejia diluituarekin desinfektatu.


### Hidromasajeko bainuontzia baduzu

Aholkatzen da inpulsioko ahokoak garbitzea eta desinfektatzea, betiere dutxa eta txorrotetarako adierazitako prozedura jarraituz.

**60 °C-tik gora bakterio hauek ez dira ugaltzen**




Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza,  
Zuzendaritzaordea eta Eskualdeak . Osasun saila.  
Eusko Jaurlaritza. Zuzenean / 012 / 945018000




*Legionella  
et legionelosisa*

*Prebentzioa  
etxeetan*



**Zer jakin behar dugun gure etxeetan aurka egiteko**



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD